

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

5247

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Rivercap SA enpresak Lapuebla de Labarcan (Araba) ardo eta edarien packagingerako kapsulak fabrikatzeko aurkeztu duen proiektu teknikoa jendaurrean jartzen duena.

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen integratuaren mende jartzen du I. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzea.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 36. artikulua xedatzen duenez, aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela egiaztatu ondoren, instalazio- edo jarduera-proiektua jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa iragarri ondoren.

Horiek horrela, jendaurrean jarri behar da AAI00468_SOL_2024_001 espedientea, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, egoki iritzitako alegazioak edo oharak aurkez daitezten.

Jendaurrean jartzeko izapidea bete behar duen instalazioaren espedientea jendearen eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>).

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 24a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.